


Edizio genetiko heredagarriak klinikan ez erabiltzeko akordioa eskatu dute adituek

Edizio genetiko heredagarriak klinikan ez erabiltzeko akordioa eskatu dute zazpi herrialdetako adituek. Sinatzaileen artean daude CRISPR edizio-teknika garatu zuten Emmanuelle Charpentier eta Feng Zhang; eta AEBko NIH Osasun Institutuak ere babestu du eskaera.

Nature aldizkarian argitaratu duten idazkian, adituek adierazi dute, azken hiru urteetako gertakizunen aurrean —iaz Txinan jaio ziren genetikoki eraldatutako bi haurren kasua, adibidez—, beharrezko ikusten dutela teknika horiek klinikan ez aplikatzea adostea nazioartean. Hala, Aditu horien ustez, ez litzateke edizio genetikorik egin beharko espermatozoideetan, obuluetan eta enbrioietan, gutxienez teknika segurua dela frogatu arte, eta erabilera onargarriak zein izan daitezkeen adostu arte. Gainera, teknika horiek klinikan erabiltzen noiz hasi erabakitzeko, gizartearen iritzia kontuan hartu behar litzatekeela adierazi dute.



ARG.: OSHU.

Bestalde, argi utzi dute proposatzen duten akordio honek ez lukeela mugatuko teknika horiek ikerketarako erabiltzea, ezta klinikan edizio genetiko zelula somatikoetan erabiltzea ere, gaixotasunak tratatzeko. ●

Eugene Chulkov fisikariak jaso du Euskadi Ikerkuntza saria



Materia kondentsatuaren fisika teorikoan nazioartean erreferente bilakatu den ikerketa sortu eta zuzentzea aitortu diote Eugene Chulkov ikertzaileari. ARG.: DIPC.

Eugene Chulkov fisikari errusiarrak jasoko du 2018ko Euskadi Ikerkuntza saria. EHUko Materialen Fisika Saileko katedraduna da Chulkov 2003tik, eta Materials Physics Centerreko eta Donostia International Physics Centerreko (DIPC) ikertzailea. Epaimahaiak adierazi duenez, ekarpen esanguratsuak egin ditu materia kondentsatuaren fisikaren eremuan, bereziki egoera solidoaren fisikan eta gainazalen fisikan.

Ekarpen zientifikoez gain, zientzia egiteko duen modua ere nabarmendu dute: eskola sortzea. Bere inguruan ikertzaileen nukleo esanguratsua eratzeko eta biltzeko gai izan dela azpimarratu dute, mundu osoko puntako berrogeita hamar ikertzaile baino gehiago. Hala, Euskal Herrira iritsi zenetik, DIPC abiarazten lagundu eta gerora bikaintasuneko talentuaren erakarpen-polo bilakatu izana aitortu diote. ●